



# GETARIA

*Historia euskaraz idatzi duen herria*  
*El pueblo que ha escrito la historia en euskera*

# HISTORIA

## LA HISTORIA



**G**izakiaren lehen aztarnak Brontze Arokoak dira Getarian, artzaintzaren kulturarekin lotutakoak, hain zuzen ere.

Getaria Erromako geografoen bidez agertzen da historian lehen aldiz. Aztarnen arabera, garai horretan Getarian erromatarren ezarkuntza bat egon zen, dirudienez hainbat egilek Menosca izenez aipatzen dutena.

Getariak ez du gorde aurreneko foru-gutunik, baina ikerketek baieztatu dute Nafarroako Antxo VI.ak XII. mendearen bukaeran eman ziola. Hurrengo urteetan aldaketa politiko nabarmen bat jasan zuen, Alfontso VIII.a gaztelauak Getaria konkistatu baitzuen 1200. urtean, eta, ondoren, aipatu foru-gutuna berretsi baitzuen. Hala ere, azken urteetan egin diren ekintza arkeologikoen erakusten digute gutxienez Erromatarren garaitik bazegoela biztanlegune garrantzitsu bat. Getaria XII. mendean Nafar erreinuak sorturiko hiribildua dela azaltzen da.

*Los primeros vestigios de ocupación humana en Getaria se remontan a la Edad de Bronce y están relacionados con la cultura pastoril de aquel momento.*

*Será con Roma cuando, a través de sus geógrafos, Getaria comience a entrar en la historia. Existen indicios de que por entonces se ubicó en el lugar un asentamiento romano, probablemente el citado por diversos autores con el nombre de Menosca.*

*Getaria no ha conservado su primera carta foral, pero las investigaciones han demostrado que fue Sancho VI de Navarra quien se la concedió a finales del siglo XII. Durante los próximos años sufrió un notable cambio político, ya que Alfonso VIII de Castilla conquistó Getaria en el año 1200 y, posteriormente, revalidó dicha carta foral. No obstante, las acciones arqueológicas desarrolladas durante los últimos años ponen en evidencia que hubo un importante núcleo de población al menos desde la época romana. Se menciona que la villa de Getaria se fundó en el siglo XII por el Reino de Navarra.*

Getariaren historian aipagarria da 1397. urtea, urte horretan eratu baitzen Salbatore Deunaren elizan Gipuzkoako Ermandatea, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren aurrekaria izan zena.

Erdi Aroaz geroztik arrantza eta merkataritza portu garrantzitsua izan den herri honek hainbat sute eta hondamen jasan ditu. 1628an, esate baterako, Getariako badian itsas bataila gogorra gertatu zen eskoadra frantsesen eta espainiarren artean. Espainiar eskoadrek bataila galdu egin zuten eta Getaria erabat hondatuta gelditu zen.

Independentzia gerran, 1811ko azaroan, Getaria tropa frantsesek hartu zuten. 1813an utzi zuten, hondamen ikaragarria eragin ondoren.



*Un hecho a destacar en la historia de la villa sucede en 1397, cuando en la iglesia de San Salvador se instituye la Hermandad de Gipuzkoa, germen del actual Territorio Histórico.*

*Getaria, importante puerto mercantil y pesquero desde la Edad Media, ha sido incendiada y destruida varias veces. En 1628, en su bahía se libra una importante batalla naval entre las escuadras francesa y española, siendo deshecha esta última y quedando la villa destrozada.*

*Durante la Guerra de Independencia, en noviembre de 1811, Getaria es tomada por las tropas francesas, quienes la abandonan en 1813, no sin antes causar gravísimos desperfectos.*



# HISTORIA-ONDAREA

## PATRIMONIO HISTÓRICO

Getariako hirigune historikoak agerian du Erdi Aroko harresiz inguratutako hiribilduaren arrastoa.

Salbatore Deunaren parrokia-eliza da udalerriko eraikin adierazgarri eta nabarmenena. Arte gotikoaren altxorra da eraikin hori eta Monumentu Nazional izendatuta dago. Garai batean harresi eta babes eginkizuna ere bazuen, oinarrian pasabide bat du, babesteko bateria jarri ahal izateko. Pasabideko burdin saretik parrokiko aldare nagusiaren azpialdean dagoen Pietatearen kriptakapera ikus liteke.

*El casco histórico de Getaria refleja todavía el carácter de villa amurallada que tuvo en la Edad Media.*

*La iglesia parroquial de San Salvador, joya del arte gótico declarada Monumento Nacional, es el edificio más emblemático de la villa. Dado que antiguamente cumplía funciones de muralla, bajo sus pies discurre un pasadizo que permitía la ubicación de una batería defensiva. Desde este pasadizo, tras unas rejas, se divisa la capilla-cripta de La Piedad, situada bajo el altar mayor de la parroquia.*



Elizari erantsita daude Zarautz dorretxea eta Ochoa Ibañez de Olano dorretxea (XV. mendea). Elkarri atxikitako dorretxe horiek euskal hiri geografian parerik ez duen multzo gotikoa osatzen dute.

San Roke kalean ere badaude gotiko-errenazimendu eraikin bikainak.

Antzinako barrutiaren hegoaldeko muturrean Aldamar jauregia agertzen da. Hortxe zeuden hirigune historikora sartzeko zubi altxagarria eta atea. Zubiaren hasiera eta atea itxita daude baina oraindik horien aztarnak ikus daitezke, antzinako harresiaren hormatalean.

Nolanahi ere, ezer azpimarratzekotan, Elkano kaleko arrantzale etxe koloretsu bitxiak azpimarratu behar dira. Egurrezko balkoiak eta sarrera aldapatsuak dituzten etxe horiek ikusi hutsean bereizten dira XIX. mendeko gainerako herri-eraikinekin.



*Abrazadas a la iglesia, se encuentran las casas-torre de Zarautz y la de Ochoa Ibañez de Olano (S. XV). Adosadas entre sí, forman un conjunto gótico sin parangón en la geografía urbana vasca.*

*La calle San Roque conserva también dos joyas de exquisito sabor gótico-renacentista.*

*En el extremo sur del antiguo recinto despunta la torre Aldamar. Aquí se levantaba el puente levadizo que daba acceso al casco histórico a través de una puerta. El arranque del puente y la puerta de ingreso, aunque cegada, todavía es visible en los restos del lienzo de la antigua muralla.*

*Pero realmente, lo más representativo de Getaria son las pintorescas y coloristas casas de pescadores distribuidas a lo largo de la calle Elkano. Sus balcones de madera y sus escarpadas entradas marcan una nota de contraste con otras edificaciones populares del s. XIX.*



# GETARIA ETA ITSASOA

## GETARIA Y EL MAR



Juan Sebastián Elcano

Getariak beti izan du itsasorako joera. Hainbat mendetan balea arrantzak zeresan handia izan du udalerraren ekonomian. Horren adierazgarri, balea izan da Getariako armarietako irudi nagusia. Getaria betidanik itsasgizon askoren sorlekua izan da; haien artean **Juan Sebastian Elcano** ospetsuena dugu. Nao Victoria ontzian munduari bira osoa eman zion lehenbiziko itsasgizona izan zen. 1522an itzuli zen lehen espedizio hura bere gidaritzapean. Getarian jaio zen **Domingo Bonaetxea** itsasgizon aparta ere, esploratzaile bikaina izateaz gain, geografoa zen eta botanika lan bikainak ere burutu zituen. Bonaetxeak bi espedizio gidatu zituen Hegoaldeko itsasoetara eta hainbat uharte aurkitu zituen bidaia haietan; ezagunena Tahiti uhartea dugu.



Domingo de Bonaetxea



*La vocación marinera de Getaria ha sido tradicional. Durante cientos de años, la caza de ballenas tuvo una gran importancia en la economía de la villa. De hecho, la ballena ha sido históricamente el motivo principal de sus escudos. En Getaria nacieron importantes marinos, como **Juan Sebastián Elcano**, quien a bordo de su nave, la Nao Victoria, fue la primera persona en completar la vuelta al mundo. Esto sucedería en 1522. También vio sus primeras luces en Getaria otro ilustre marino: **Domingo de Bonaetxea**. Además de marino, explorador, geógrafo y botánico, Bonaetxea dirigió dos exploraciones a los mares del sur, que dieron como resultado el descubrimiento de varias islas, entre ellas Tahití.*

Getariako portua San Anton mendiaren magalean dago. Mendi horrek portua mendebaldeko haizeetatik babesten du. Hori dela eta, Getariako babes portu paregabea da, segurua eta sarrera egokia duena. Historian barrena Getariako portua arrantza, merkataritza eta babes portu izan da.

Gaur egun, euskal kostaldeko baxurako arrantzako portu garrantzitsuenetakoa da Getariakoa (arrantza-kanpaina nagusiak antxoarena, hegaluzearena eta berdelarena dira).



*El puerto de Getaria está situado al abrigo del monte San Antón, que le protege de los vientos del oeste. Este hecho hace que el de Getaria sea un excelente puerto refugio, seguro y de fácil entrada, motivo por el que a lo largo de su historia ha sido utilizado como puerto mercante, pesquero y de defensa.*

*Actualmente constituye uno de los puertos de mayor relevancia en la pesca de bajura del litoral vasco. Especies de temporada como la anchoa, el bonito y el verdel son cada año los principales protagonistas de sus campañas pesqueras.*

Kirol portua, Kantauri aldeko onenarikoa, portuko hegoaldeko kaimuturrean dago. Kirol portuaren baldintzak oso egokiak direnez, itsasontziak edozein unetan sar daitezke, itsas marea edo itsasoaren egoera edozein dela ere. 300 amarratze baino gehiago ditu ur gaineko pantalanetan eta hainbat zerbitzu jolas eta aisialdiko ontzientzat.



*u puerto deportivo, uno de los mejores del Cantábrico, está situado en el dique sur. Las buenas condiciones hacen que el acceso de los barcos pueda realizarse en cualquier momento, independientemente de la marea o el estado de la mar. Cuenta en la actualidad con más de 300 amarres a flote sobre pantalanes y con servicios destinados a las embarcaciones de recreo.*

# GASTRONOMIA

PARRILLAK, ARRAINA, TXAKOLINA... PARRILLAS, PESCADO, TXAKOLÍ...

Getariako gastronomia eskaintza, Euskal Herriko onenetakoa, ondo ezaguna da, Euskal Herrian zein atzerrian. Bertara datorrenak aukera bikaina izango du, Getariako edozein jatetxetan, inguruetako baserrietako eta itsasoko arrainik bizienak dastatzeko eta gozatzeko. Gastronomi eskaintza horiek poltsiko guztietara egokitzen dira, eta pintxoetan oinarritzen diren otorduak jaki hauek dastatzeko era berri eta interesgarria dira gure sukaldera hurbiltzeko.


Hala ere, gure berezitasun nagusia parrilla gainean ikatz-txingarretan erretako arrain eta itsaskiak ditugu. Ez dute alferrik esaten Getarian sortu zela arraina eta mariskoa txingarretan erretzeko ohitura, guzti hau inguruko mahastietako Getariako Txakolinaz lagunduta.



*La oferta gastronómica de Getaria, una de las mejores del país, es de sobra conocida incluso fuera del País Vasco. En cualquiera de sus restaurantes, el visitante puede degustar los productos más frescos de nuestro mar y de nuestros caseños. Gastronomía para todos los gustos y economías. Incluso la “mini-gastronomía” a base de pintxos es una interesante y original opción.*

*Pero como no podía ser de otro modo, los pescados a la parrilla y los mariscos, preparados de mil formas, son la principal especialidad. No en vano se dice que fue aquí donde se inició la costumbre de asar pescados y mariscos a la brasa, y todo ello regado con un excelente txakolí, “Txakolí de Getaria”.*

Getaria aipatze hutsarekin txakolina datorkigu gogora. Eta hori ez da gaur goizeko kontua, izan ere, 1571n Garibai historialariak adierazi zuen Getariako txakolina penintsulako ardorik onenen artean aipatzen zutela. Getariako txakolina ardo zuria da, fruta-gustukoa, erdi pareko graduazioa eta garratzasun berezia duena. Gastronomía adituen arabera, arrainaren lagungarri ezin hobea da, arrain platera guztiena eta bereziki parrillan egindakoena.



*Porque hablar de Getaria es hablar de txakolí. Ya en 1571, el historiador Garibai afirmaba que nuestro txakolí era considerado como uno de los mejores vinos de la península. El txakolí de Getaria es un vino blanco y afrutado, de graduación media y acidez característica. Según expertos gastronómicos, es el acompañamiento ideal para cualquier plato de pescado o marisco.*



# INGURU NATURALA APARTA

UN ENTORNO NATURAL PRIVILEGIADO

Ingurua aparta da, kolore gama guztiak agertzen dituena, batez ere urdina eta berdea.

Getariak bi hondartza ditu, biak ere hirigunetik gertu. Hiribilduaren babespean dagoen Malkorbe hondartza oso egokia da hainbat itsas kirol egiteko (igeriketa, piraguismoa, bela...). Gaztetape hondartza, berriz, hiribilduaren mendebaldean dagoena, oso egokia da surfa egiteko, horretarako olatu politak dituelako.



*Su privilegiado entorno es una paleta en la que se mezclan todas las gamas de colores, con predominio del azul y el verde.*

*Getaria cuenta con dos playas ubicadas en las proximidades del casco urbano. La de Malkorbe, al socaire de la villa, resulta ideal para la práctica de deportes náuticos como la natación, el piragüismo o la vela. Por el contrario, la playa de Gaztetape, situada al oeste de la villa, debido a sus olas resulta ideal para el deporte del surf.*



San Anton mendia, “Getariako arratoia” izenez ezagutzen dena, natur parke interesgarria da. Hainbat landare eta arbola ikusteko aukera eskaintzen du, bertakoak nahiz exotikoak. XV. mendera arte irila izan zen baina istmo edo beso artifizial baten bidez udalerriri lotu eta bat eginda dago harrez gero.

Gailurrera bidean lehenbizi itsasargira iristen gara. Leku horretan ermita bat zegoen antzina. Ermita hori 1813ko frantsesen aurkako gerran desagertu zen. Talaia ikusgarri horretatik atzematen eta jakitera ematen zuten baleak gertu zebiltzala edo galerna arriskutsuren bat bazetorrela.

*El monte San Antón, más conocido como “ratón de Getaria”, constituye un interesante parque natural en el que se puede apreciar una gran variedad de plantas y arbolado, tanto autóctono como exótico. Hasta el s. XV fue una isla, pero quedó unida al pueblo a través de un brazo o istmo artificial.*

*El acceso hacia la cumbre nos conduce hasta el faro, lugar donde antaño se ubicó una ermita que fue destruida por las tropas francesas durante su retirada en 1813. Desde esta atalaya excepcional, se avisaba de la proximidad de las ballenas o del peligro de galernas.*



Getariako lau landa auzoetatik (San Prudentzio, Askizu, Eitzaga eta Meaga) natur ingurune paregabea ikus daiteke: txakolinetarako mahastiek jantzitako lur-sailak, itsasoa beti atzean dela.

Lur-sail horietan barrena doa Santiago Bidea, “kostaldeko bidea”. Bide hori Zarautzik dator eta udalerrria zeharkatuz San Prudentzio Erdi Aroko ermitaren ondotik pasatuz iristen da Askizura. Askizu auzoa Kantauri itsasoko begiratoki idilikoa da. Bertan dago Tourseko Martin Deunaren, bidaiari eta erromesen zaindariaren, ermita.



*Desde cualquiera de sus cuatro barrios rurales, San Prudentio, Askizu, Eitzaga o Meaga, el espectáculo natural, siempre con el mar como telón de fondo, ofrece la visión de unos campos cubiertos por los viñedos, cuyo fruto será transformado en txakolí.*

*Entre estos campos discurre el Camino de Santiago, conocido como de “la costa”, que entrando desde Zarautz y atravesando el municipio, pasa junto a la medieval ermita de San Prudentio y llega hasta Askizu, un idílico balcón sobre el Cantábrico donde se encuentra la iglesia de San Martín de Tours, patrón de peregrinos y caminantes.*

# CRISTOBAL BALENCIAGA MUSEOA

## MUSEO CRISTOBAL BALENCIAGA



Cristobal Balenciaga Getarian jaio zen, 1895ko urtarrilaren 21ean.

Balenciagak, arrantzale familian sortua, Aldamar jauregian egin zituen lehen urratsak jostuntzan, Casa Torreko markesen (Belgikako Fabiola erreginarene gurasoen) bizileku izan zen jauregian. 1915ean zabaldu zuen, Donostian, Balenciaga izeneko lehen jostundegia. Ondoren, Madril eta Bartzelonan zabaldu zituen.

Izen eta ospe handiko bezeroak izan zituen. Habsburgoko Maria Cristina eta Victoria Eugenia erreginak eta Jane Fonda aktorea, adibidez, Balenciagaren jarraitzaile leialak izan ziren. 72 urte zituela, Parisen lanean 30 urte egin ondoren, erretiratu egin zen. 1972ko martxoaren 24an Javean (Alicante) hil eta Getarian hilobiratu zuten.

A handwritten signature in blue ink that reads "Cristóbal Balenciaga". The signature is written in a cursive, flowing style. Below the signature, there is a horizontal line.



*Cristóbal Balenciaga nació en Getaria el 21 de enero de 1895.*

*Hijo de arrantzales, dio sus primeros pasos en el mundo de la costura en el palacio de Aldamar, antigua residencia de los marqueses de Casa Torre, padres de la reina Fabiola de Bélgica. En 1915 abre en Donostia-San Sebastián su primera casa de costura y posteriormente en Barcelona y Madrid.*

*Seguido por una selecta y exquisita clientela, desde las reinas María Cristina de Habsburgo y Victoria Eugenia, hasta la actriz Jane Fonda, fueron fieles seguidoras. A los 72 años, después de 30 de actividad en París, decide retirarse. Muere en Jávea (Alicante) un 24 de marzo de 1972 y es enterrado en Getaria.*




Cristobal Balenciaga Museoa, jostun bakar bati eskainitako lehen museoa bihurtu da mundu osoan. Museoa Balenciaga Fundazioaren babesean lortu zen eta berea egin du Fundazioaren misioa: moda-sortzaileak eta haren lanak modaren eta goi mailako jostuntzaren munduan, bereziki, eta, oro har, sorkuntza artistikoan izan zuten garrantziaren berri ematea, zabaltzea eta indartzea.

Bi espazio handi, sei sala, kontu handiz aukeratutako pieza paregabeek prestatutako erakusketa finko bat, aldi baterako erakusketak eta jarduera-programa zabal bat: horietan osatzen dute, moda unibertsaleko jenio handienetako bati eskainitako lehen museoa: Cristobal Balenciaga.



*El “Cristóbal Balenciaga Museoa” es por sus características, el primer gran museo dedicado en exclusiva a un modisto. Gestado bajo la tutela de la Fundación Cristóbal Balenciaga Fundazioa, el Museo hace propia la misión de este organismo de promocionar, difundir y potenciar la transcendencia, relevancia, importancia y relieve de la persona y obra del genial diseñador en la creación artística en general, y en el mundo de la moda y alta costura en particular.*

*Dos grandes espacios, seis salas y una cuidada selección de piezas inigualables para la colección permanente, además de las exposiciones temporales y un extenso programa de actividades, configuran a grandes rasgos, el primer museo pensado y dedicado a uno de los mayores genios de la moda universal: Cristóbal Balenciaga.*



**TURISMO BULEGOA - OFICINA DE TURISMO**

Aldamar parkea, 2 • 20808 GETARIA • Tel.: 943 140 957 • infoturismo@getaria.eus

[www.getariaturismo.eus](http://www.getariaturismo.eus)

Argitaratzailea/Edita: GETARIAKO UDALA • Egilea/Realización: KAIOLA asp • Argazkiak/Fotografias: Javier Carballo, Alejandro Vázquez, Getariako Udala, Kaiola.



Getariako Udala

ELKAN@

Euskadi  
around the world,  
again

